



BAZTAN BALLEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN -NAVARRA-

2014ko APIRILaren 28ko EZ-OHIKO OSOKO BILKURA
SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DE 28 DE ABRIL DE 2014

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2014ko apirilaren 28an, goizeko 8:00etan, Baztango Udaleko Osoko Bilkura bildu da; ez-ohiko bilkuran, Garbiñe Elizegi Narbarte alkate anderearen lehendakaritzapean, eta zinegotzi hauek etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Maria Teresa Oteiza Apecechea, BILDU taldekoak; Begonia Sanzberro Iturriria, Maria Carmen Iribarren Iribarren, Maria Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino, Jose M^a Garmendia Arizmendi, UPN taldekoak; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, BAZTANGO EZKERRA taldekoak.

Ez dira bertaratu: Maitane Maritorea Azkarate eta Jon Elizetxe Bidegarai, BILDU taldekoak eta Maite J. Iturre Llano NA-BAI (2011) taldekoa.

Idazkari lanetan, Iulen Urbiola Loyarte aritu da.

Alkate anderearen aginduz, bilkura hasi da.

BAKARRA: 2014ko maiatzaren 25ean eginen diren Europako Parlamenturako hauteskundeetarako Baztango hauteskunde mahaietako mahaiburu, mahaikide eta ordezkioak izendatzeko zozketa.

Baztango Udaltzari Gobernuaren Nafarroako Foru Komunitateko Ordezkaritzak eta Iruñeko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak bidalitako argibideen berri eman zitzaion, 2014ko maiatzaren 25ean eginen diren Europako Parlamenturako hauteskundeetarako Baztango hauteskunde mahaietako mahaiburu, mahaikide eta ordezkioak izendatzeko.

Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan xedatutakoari jarraikiz, zozketa egin da, Baztango hamabi hauteskunde mahaietako mahaikideak izendatuz.

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 8:00 de la mañana del día 28 de abril de 2014, se reúne, en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, presidido por la alcaldesa Garbiñe Elizegi Narbarte y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, María Teresa Oteiza Apecechea, del grupo BILDU; Begonia Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren, María Isabel Olave Ballarena, Leopoldo Jaén Sobrino, José M^a Garmendia Arizmendi, del grupo UPN; Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, del grupo BAZTANGO EZKERRA.

No han asistido: Maitane Maritorea Azkarate y Jon Elizetxe Bidegarai, del grupo BILDU y Maite J. Iturre Llano, del grupo NA-BAI (2011)

Actúa como secretario, Iulen Urbiola-Loyarte.

La alcaldesa da comienzo a la sesión.

ÚNICO: Sorteo para designación de presidentes, vocales y suplentes correspondientes a las mesas electorales del municipio de Baztan para las Elecciones al Parlamento Europeo a celebrar el día 25 de mayo.

Se pusieron en conocimiento de la Corporación las instrucciones remitidas por la Delegación del Gobierno en la Comunidad Foral de Navarra, así como por la Junta Electoral de Zona de Pamplona, en orden a la designación de presidentes, vocales y suplentes correspondientes a las mesas electorales del municipio de Baztan para las Elecciones al Parlamento Europeo, a celebrar el 25 de mayo de 2014.

A tenor de lo dispuesto al efecto en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General, se ha realizado el sorteo, y consiguiente designación de miembros de cada una de las doce mesas electorales que hay en el Municipio del Valle de Baztan.


Aho batez erabaki da: 2014ko maiatzaren 25ean eginen diren Europako Parlamenturako hauteskundeetarako Baztango hauteskunde mahaietako mahaiburu, mahaikide eta ordezkioak izendatzeko egindako zozketa publikoaren emaitzen jakitun gelditzea. Datu guztiak apropos ireki den espedientean bildu dira eta bilkura honekin batera artxibatuta daude.

Se acuerda por unanimidad: Darse por enterados del resultado del sorteo público realizado para designación de presidentes, vocales y suplentes correspondientes a las mesas electorales del municipio de Baztan para las Elecciones al Parlamento Europeo a celebrar el 25 de mayo de 2014, cuyos datos obran en el oportuno expediente incoado al efecto, que queda archivado con el de la presente sesión.

Jarraian alkate-udalburu andereak bilkura amaitutzat eman du goizeko 8:20ean, idazkari gisa horren guztiaren fede ematen dut.

Seguidamente, por la Sra. alcaldesa-presidenta, se levanta la sesión, siendo las 8:20 de la mañana, de todo lo cual, como secretario doy fe.

ALKATEAK
LA ALCALDESA



IDAZKARIAK
EL SECRETARIO

